# Beste Iragarki Ofizial Batzuk

**OSASUN SAILA**

IRAGARKIA 389/06 administrazioarekiko auzi errekurtsoan (prozedura laburtua) interesa izan dezaketen hirugarrenentzako deia. 258

**ZERGA AGENTZIA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ORDEZKARITZA BEREZIA**

IRAGARKIA, Euskadiko Zerga Administrazioarako Agentzia Estatalaren Ordezkaritza Berezian egin gabe dauden jakinarazpenetarako. 259

IRAGARKIA, Euskadiko Zerga Admnistrazioarako Agentzia Estatalaren Ordezkaritza Bereziaren egin gabeko jakinarazpenena. 260

**ZERGA AGENTZIA NAFARROAKO ORDEZKARITZA BEREZIA**

IRAGARKIA, Nafarroako Zerga Administraziorako Agentzia Estatalaren Ordezkaritza Bereziak egin gabe dituen jakinarazpenei buruzkoa. 263

# Otros Anuncios Oficiales

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el recurso contencioso-administrativo (procedimiento abreviado) n.º 389/06. 258

**AGENCIA TRIBUTARIA DELEGACIÓN ESPECIAL DE PAÍS VASCO**

ANUNCIO de notificaciones pendientes de la Delegación Especial de la Agencia Estatal de Administración Tributaria de País Vasco. 259

ANUNCIO de notificaciones pendientes de la Delegación Especial de la Agencia Estatal de Administración Tributaria de País Vasco. 260

**AGENCIA TRIBUTARIA DELEGACIÓN ESPECIAL DE NAVARRA**

ANUNCIO de notificaciones pendientes de la Delegación Especial de la Agencia Estatal de Administración Tributaria de Navarra. 263

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

## 55

10/2006 LEGEA, abenduaren 29koa, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak 10/2006 Legea, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

10/2006 Legea, abenduaren 29koa, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzkoa.

ZIOEN AZALPENA

Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduan (nekazaritza-ekoizpen ekologikoari eta nekazaritza- eta elikadura-produktuetan ekoizpen mota hori adierazteko moduari buruzkoa) nekazaritza ekologikoaren bidezko produktuak ekoitzi, landu, biltegiratu, merkaturatu eta hirugarren herrialde batzuetatik merkaturatzeko inportatzeari buruzko arauak daude jasota, eta baita modu ekologikoan ekoiz-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

## 55

LEY 10/2006, de 29 de diciembre, de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley

Ley 10/2006, de 29 de diciembre, de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991, sobre la producción agrícola ecológica y su indicación en los productos agrarios y alimenticios, establece las normas para la producción, la elaboración, el almacenamiento, la comercialización, la importación de países terceros y el etiquetado de los productos procedentes de la agricultura ecológica con vistas a su comercialización, así como la utilización de

teko metodoari buruzko adierazpenak ere. Horrekin batera, ekoizle, produktugile, biltegiratzaile, merkatari eta inportatzaileek, nekazaritza eta abelazkuntza ekologikoko produktuak ekoitzi nahi izanez gero, zein kontrol-neurriren menpe egongo diren ere zehazten du, hain zuzen ere agente ekonomiko horiek Europako araudietan ezarritako ekoizpen-arauak errespetatuko dituztela eta baimendutako produktuak baino ez dituztela erabiliko bermatzeko.

Europako Kontseiluaren 1999ko uztailaren 19ko 1804/99 (EEE) Erregelamenduak aurreko erregelamendu horretako araudia osatu zuen, animalien produkzioak ere barnean hartu baitzituen, eta ekoizteko modu ekologikoari buruzko adierazpenak erabiltzearen inguruko arau batzuk ere finkatu zituen.

Bestalde, irailaren 24ko 229/1996 Dekretuak produktuen ekoizpen, lantze eta merkaturatzea arautu zuen, eta baita Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseilua sortu ere, Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saileko kide anitzeko organo gisa: nekazaritza ekologikoaren arloan aholku ematea eta lankidetza eskaintzea ditu eginkizun. Kontseilu hori Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako Zuzendaritzaren menpe dago organikoki eta hierarkikoki, zuzendaritza horren eskumena baita Euskal Autonomia Erkidegoan kontrol-lana egitea, hau da, Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduaren 9. artikuluan aipatzen diren kontrol-neurriak eta kontrol-sistema ezartzea.

Kontseiluaren urteotako esperientziak eta jarduteko aukera murritzek garbi utzi dute kontseilu horren hezurdura juridikoa aldatu beharra dagoela. Kontseiluaren araubide juridikoa aldatu behar horrek badu beste asmo bat oinarrian: hain zuzen ere, nekazaritza ekologikoaren sektorea egokitzea, kontseiluari garrantzi eta zeresan handiagoa ematearren (eta, bidenabar, baita kontseilu horretan ordezkaritza duten sektoreei ere) eta Administrazioaren esku honako eginkizun hauek besterik ez uztearren: kontseiluaren jarduna bera ikuskatu eta zaintzea eta jardun hori lege honetan ezarritako betekizunak eta helburuak betetzera zuzentzen denetz ikuskatu eta zaintzea. Horrela, bada, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua sortu da: zuzenbide publikoko korporazio gisa sortzen da, berezko nortasun juridikoa, autonomia ekonomikoa eta jarduteko gaitasun osoa dituela, Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/1991(EEE) Erregelamenduak ezarritako araubideari dagozkion eginkizunak betetzeko (erregelamendu hori nekazaritza-ekoizpen ekologikoari eta nekazaritza- eta elikadura-produktuetan ekoizpen mota hori adierazteko moduari buruzkoa da). Langile propioak izango ditu, Administrazioarekiko loturarik gabekoak, eta bere ondarea, Kode Zibilaren 39. artikuluan xedatutakoa betez, kontseiluaren araudian aurreikusitako helburuetarako erabiliko da. Kontseiluaren jarduera, orokorrean, zuzenbide pribatuaren araberakoa izango da, non eta ez diren funtzio publikoari dagozkion jarduerak burutu beharko, kasu

las indicaciones referentes al método de producción ecológica. Establece, además, la obligación que tienen quienes produzcan, elaboren, almacenen, comercialicen e importen productos de la agricultura y la ganadería ecológica de someterse a un régimen de control, si desean comercializar dichos productos, con el objetivo de garantizar que los agentes económicos respeten las normas de producción de la reglamentación comunitaria y únicamente utilicen los productos autorizados en ella.

El Reglamento (CE) n.º 1804/99, del Consejo, de 19 de julio de 1999, completa la regulación del anterior reglamento con la inclusión de las producciones animales, y establece una serie de normas relativas a la utilización de las indicaciones referidas al método de producción ecológica.

El Decreto 229/1996, de 24 de septiembre, regula la producción, elaboración y comercialización, y crea el Consejo Vasco de la Producción Agraria Ecológica como órgano colegiado del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, para ejercer las funciones de consulta y colaboración en materia de agricultura ecológica. Se adscribe orgánica y jerárquicamente a la Dirección de Política e Industria Agroalimentaria, que es quien ejerce las funciones de autoridad de control previstas en el artículo 9 del Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991, en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y, por tanto, la encargada de aplicar el sistema de control establecido en dicho reglamento.

La experiencia adquirida en estos años de funcionamiento del consejo, y visto su reducido margen de actuación, demuestra la necesidad de modificar su configuración jurídica. Este cambio en su régimen jurídico responde a la pretensión de adaptación del sector de la producción ecológica orientada a otorgar más relevancia al consejo, y, por tanto, a los sectores en él representados, dejando a la Administración únicamente las funciones de supervisión y tutela sobre el funcionamiento del consejo y sobre su adaptación a las finalidades y cumplimiento de las obligaciones contenidas en la presente ley. En este sentido, se crea el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi como corporación de derecho público, con personalidad jurídica propia, autonomía económica y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de las funciones derivadas del régimen aplicable a la producción agrícola ecológica y su indicación en los productos agrarios y alimentarios establecidos por el Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991. Tendrá personal propio, no vinculado a la Administración, y su patrimonio, por aplicación de lo dispuesto en el artículo 39 del Código Civil, se deberá destinar al fin previsto en su normativa reguladora. Con carácter general ajustará su actividad al derecho privado, sin perjuicio de la regulación por el derecho administrativo de las actuaciones que impliquen el ejercicio de funciones públicas. Respecto a estas actuaciones, la Administración se reserva las funciones de supervisión y tutela sobre el

horretan Administrazio Zuzenbidearen menpe egongo baita. Jardun horiei dagokienez, Administrazioak ikuskatze- eta zaintze-eginkizunak izango ditu bere esku: hain zuzen ere, kontseilu horren jarduera ez ezik, jarduera hori indarrean den araudiak ezarritako betebeharrak eta helburuak betetzeari egokitzen ote zaion ere ikuskatu eta zainduko du.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua ondorengoek osatzen dute: kontseiluburuak, kontseiluburuordeak eta honako hauen guztien ordezkariek: ekoizpen-ustiategien jabeen ordezkariek, produktuak lantzen dituzten enpresen ordezkariek, merkaturatzaileen eta inportatzaileen ordezkariek, kontsumitzaileen elkarteen ordezkariek eta Euskadiko Nekazaritza Ekologikoko Elkarteen Federazioaren ordezkari batek. Bestalde, kontseiluaren zuzendariak idazkarilana egingo du. Kontseilua nortzuk osatuko duten eta zein eginkizun izango dituen araudi bidez zehaztuko da, baina kontuan izanda lege honetako artikuluetan gai horiei buruz zer esaten den. Bestalde, kontseiluaren finantza-baliabideak lege honetako 13. artikuluan ezarritakoak izango dira.

Zehapen-prozedurari dagokionez, arau-hauste eta zehapenen erregimena ondorengo arauetan ezarritakoa izango da: abenduaren 22ko 6/2003 Legean ezarritakoa, (Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzkoa); ekainaren 22ko 1945/1983 Errege Dekretuan ezarritakoa (kontsumitzaileen defentsaren eta nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren alorreko arau-hausteak eta zehapenak arautzen ditu); eta maiatzaren 7ko 5/2004 Legean ezarritakoa (mahastizaintza eta ardogintza antolatzen ditu). Era berean, aurreko horiek osatu edo aldatzen dituen beste edozein xedapen ere bete beharrekoa izango da.

*1. artikulua.–* Xedea.

1.– Lege honen xedea nekazaritza eta elikadura ekologikoaren arautze eta kontrol-araubide bat ezartzea da, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen- eta geografia-esparruaren barruan.

2.– Aurreko idatz-zatian aipatutako arautzearen eta kontrol-erregimenaren menpe egongo dira Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduak (ekoizpen ekologikoa arautzen du, bai eta nekazaritza- eta elikadura-produktuetan ekoizpen mota hori adierazteko modua ere) 1. artikuluan aipatzen dituen produktuetakoren bat ekoitzi, landu, biltegiratu, merkaturatu edo inportatzen dituzten operadore guztiak.

3.– Europako araudietan ekoizpenari, produktuak lantzeari, inportazioari eta merkaturatzeari buruz ezarritakoa betetzen dela bermatzeko xedearekin, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua sortu da lege honen 4. artikuluaren bitartez.

*2. artikulua.–* Operadoreen erregistroa.

1.– Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduaren 1. artikuluan aipa-

funcionamiento del citado consejo y sobre su adaptación a las finalidades y cumplimiento de obligaciones recogidas en la normativa vigente.

El Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi está formado por el presidente o la presidenta, el vicepresidente o la vicepresidenta, representantes de los y las titulares de explotaciones de producción, empresas elaboradoras, comercializadoras e importadoras, asociaciones de personas consumidoras, así como una persona en representación de la Federación de Asociaciones de Agricultura Ecológica de Euskadi. Por su parte, el director o la directora del consejo desempeñará las funciones de secretario o secretaria. Su composición y funciones se determinarán reglamentariamente, sin perjuicio de la definición que de tales extremos se contiene en el articulado de la presente ley. Por otro lado, los recursos financieros con los que cuenta el consejo son los fijados en el artículo 13 de la ley.

En lo que respecta al procedimiento sancionador, el régimen de infracciones y sanciones será el establecido en la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, en el Real Decreto 1945/1983, de 22 de junio, que regula las infracciones y sanciones en materia de defensa de las personas consumidoras y de la producción agroalimentaria, en la Ley 5/2004, de 7 de mayo, de Ordenación Vitivinícola, así como en cualesquiera otras disposiciones que las complementen o sustituyan.

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– Es objeto de la presente ley establecer la regulación y el régimen de control de la agricultura y la alimentación ecológica, dentro del ámbito competencial y geográfico de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– A la regulación y régimen de control indicado en el apartado anterior deberán someterse los operadores y las operadoras que produzcan, elaboren, almacenen, comercialicen o importen algún producto de los citados en el artículo 1 del Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991, sobre producción agrícola ecológica y su indicación en los productos agrarios y alimenticios.

3.– Con la finalidad de garantizar el cumplimiento de las normas de producción, elaboración, importación o comercialización fijadas en la reglamentación comunitaria se crea, en el artículo 4, el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

*Artículo 2.–* Registro de operadores y operadoras.

1.– Los y las operadoras que produzcan, elaboren, almacenen, importen de un país tercero o comercialicen,

tzen diren produktuetakoren bat Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizten, lantzen, merkaturatzen edo beste herrialde batzuetatik inportatzen duten operadoreek izena emanda eduki beharko dute operadoreen erregistroan; Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak kudeatuko du erregistro hori. Operadoreek kontseilura bidali beharko duten jakinarazpenean, goian aipatutako erregelamenduaren IV. eranskinean zehazten diren datuak jaso beharko dituzte. Horrekin batera, izandako aldaketa guztien berri eman beharko diote kontseiluari.

2.– Hona hemen zein atalez egongo den osatuta operadoreen erregistroa:

a) Nekazaritzako ekoizpen-unitateen jabe diren operadoreen atala.

b) Produktuak lantzen dituzten enpresen jabe diren operadoreen atala.

c) Beste herrialde batzuetatik produktuak inportatzen dituzten enpresen jabe diren operadoreen atala.

d) Produktuak merkaturatzen dituzten enpresen jabe diren operadoreen atala.

*3. artikulua.*– Operadoreen eskubide eta betebeharrak.

Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduaren 1. artikuluan aipatzen diren produktuetakoren bat ekoizten, lantzen, biltegiratzen, merkaturatzen edo beste herrialde batzuetatik inportatzen duten operadoreek honako eskubide eta betebeharrak izango dituzte:

a) Eskubideak:

– Ekoiztea eta/edo lantzea beren produktuak Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduan edo xede horretarako aplikatu behar diren gainerako xedapen gehigarrietan ezarritako ekoizpen-arauei jarraituz.

– Nekazaritzari buruzko aipamenak erabili ahal izatea indarrean dauden arauak betetzen dituzten produktuetan; arau horiek ekoiztean, lantzean, merkaturatzean eta inportatzean bete behar dira.

– Kontseiluan dena delako sektore horren ordezkari hautatua izateko eskubidea, edo ordezkaria hautatzekoa.

– Nekazaritzako eta elikadurako produktu ekologikoak sustatzeko eta jendartean ezagutarazteko kanpainetan parte hartzeko eskubidea.

b) Betebeharrak:

– Beren enpresa kontrol-araubidearen pean jarri beharko dute eta kontrol horrek eragindako gastuak ordaindu beharko dituzte.

– Kontseiluak ezarriko duen kuota ordaintzea.

– Kontseiluaren akordio bidez hartutako erabakiak eta jarraibideak betetzea.

en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, algún producto de los citados en el artículo 1 del Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991, deberán estar inscritas en el registro de operadores y operadoras, que será gestionado por el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi. La notificación que el operador o la operadora deberá remitir al consejo deberá incluir los datos que se especifican en el anexo IV del citado reglamento. Asimismo, deberá notificar al consejo cualquier variación que se produzca.

2.– El Registro de operadores y operadoras se estructura en las secciones siguientes:

a) Sección de operadores y operadoras titulares de unidades productivas agrarias.

b) Sección de operadores y operadoras titulares de empresas elaboradoras.

c) Sección de operadores y operadoras titulares de empresas importadoras de terceros países.

d) Sección de operadores y operadoras titulares de empresas de comercialización.

*Artículo 3.*– Derechos y obligaciones de los operadores y las operadoras.

Los operadores y las operadoras que produzcan, elaboren, almacenen, importen de un país tercero o comercialicen algún producto de los citados en el artículo 1 del Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio 1991, tendrán los siguientes derechos y obligaciones:

a) Derechos:

– Producir y/o elaborar sus productos de acuerdo con las normas de producción establecidas en el Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991, así como en las demás disposiciones complementarias referidas al mismo objeto que sean de aplicación.

– Poder aplicar menciones relativas a agricultura ecológica a los productos que cumplan las normas exigidas por la legislación vigente, tanto en las fases de producción como en las de elaboración, de comercialización y de importación.

– Elegir y ser elegidos o elegidas representantes del sector en el consejo.

– Participar en las campañas de promoción y difusión de los productos agrarios y alimentarios ecológicos.

b) Obligaciones:

– Someter a su empresa al régimen de control y abonar el coste de realización del mismo.

– Abonar el importe de la cuota que fije el consejo.

– Cumplir con las decisiones y directrices de actuación adoptadas por acuerdo del consejo.

– Beren jarduera hori aurrera eramateko legez ezarritako betebehar oro bete beharko dute, edozein motatakoa dela ere.

*4. artikulua.*– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua.

1.– Europako araudietan produktuak ekoizteari, lantzeari, inportatzeari eta merkaturatzeari buruz ezarrita dauden arauak betetzen direla bermatzeko xedearekin, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua sortu da.

2.– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua horrela sortu da: zuzenbide publikoko korporazio gisa, berezko nortasun juridikoa, autonomia ekonomikoa eta jarduteko gaitasun osoa dituela, Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/1991 (EEE) Erregelamenduak ezarritako araubideari dagozkion eginkizunak betetzeko (araubide horrek nekazaritzako ekoizpen ekologikoa arautzen du, bai eta nekazaritza- eta elikagai-produktuetan nekazaritza mota horren adierazpena nola egin ere).

3.– Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren jarduera, orokorrean, zuzenbide pribatuaren araberakoa izango da, ondorengo jardueretan izan ezik: indarrean dagoen legerian zehaztutako erregistroetan alta ematea, Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/1991 zk.ko (EEE) Erregelamenduak ezarritako kontrol-sistema betetzen dela egiaztatzea eta zehatzeko ahalaz baliatzea lege honek zehaztutako zehapen-erregimenaren baitan; azken kasuotan administrazio-zuzenbidearen menpe egongo da.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean nekazaritza arloko eskumenak dituen sailak kontseiluaren eskuetan utzi ahal izango ditu beste funtzio publiko batzuk aurrera eramateko eginkizunak, helburuak lortzeko beharrezkoa bada, baina Administrazioaren gainbegiratze-lana egingo du, kasuan kasuko zuzendaritzaren bidez.

5.– Administrazio-zuzenbidea bete behar duten kontseiluaren egintzen aurka errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean nekazaritza arloko eskumenak dituen saileko kasuan kasuko organoaren aurka, beti ere administrazio-prozedurako arauetan ezarritako epe eta baldintzak beteta.

*5. artikulua.*– Aplikazio-eremua.

1.– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren jarduera-eremua Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduaren 1. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen diren eta ekoizpen modu ekologikoari buruzko adierazpenak dituzten nekazaritza- eta elikagai-produktuetakoren bat ekoitzi, landu, biltegiratu, merkaturatu edo beste herrialde batzuetatik inportatzearekin zerikusia duen guztia da.

– Cumplir con cualquier tipo de obligación legalmente establecida para el desempeño de la actividad.

*Artículo 4.*– Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

1.– Con la finalidad de garantizar el cumplimiento de las normas de producción, elaboración, importación o comercialización fijadas en la reglamentación comunitaria se crea el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

2.– El Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi se crea como corporación de derecho público, con personalidad jurídica propia, autonomía económica y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de las funciones derivadas del régimen aplicable a la producción agrícola ecológica y su indicación en los productos agrarios y alimenticios establecido por el Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991, sobre la producción agrícola ecológica y su indicación en los productos agrarios y alimenticios.

3.– Con carácter general, el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi ajustará su actividad al derecho privado, a excepción de las actuaciones derivadas de la inscripción en los registros establecidos por la normativa vigente, de las funciones de supervisión de acreditación del cumplimiento del sistema de control establecido por el Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991, y del ejercicio de la potestad sancionadora en el marco del régimen sancionador regulado en la presente Ley; que estarán sometidas al derecho administrativo.

4.– El departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria podrá delegar en el consejo el ejercicio de otras funciones públicas necesarias para el cumplimiento de sus fines, y ejercerá la tutela administrativa sobre el mismo, a través de la dirección competente.

5.– Los actos del consejo sujetos al derecho administrativo serán objeto de recurso ante el órgano correspondiente del departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria, en el plazo y con los requisitos que establecen las normas de procedimiento administrativo.

*Artículo 5.*– Ámbito de actuación.

1.– El ámbito de actuación del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi se extiende a la producción, la elaboración, el almacenamiento, la comercialización y la importación de los productos agrarios y alimenticios incluidos en el punto 1 del artículo 1 de dicho reglamento que lleven indicaciones referentes al método de producción ecológica con arreglo al Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991.

2.– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoak bere jarduna egiterakoan ezin izango du alde batera utzi bere jardun-esparruaren gainean nekazaritza eta elikadura ekologikoari buruzko xedapen espezifikoak ez diren arauetan ezarritakoa.

3.– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren lurralde-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.

4.– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan ondorengo arloetan diharduten operadore hauek guztiak sartuko dira: Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduaren 1. artikuluan aipatzen diren produktuetakoren bat ekoitzi, landu, biltegiratu, merkaturatu edo beste herrialde batzuetatik inportatzen dihardutenak.

***6. artikulua.***– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak dituen eginkizunak.

1.– Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduan (nekazaritza-ekoizpen ekologikoari eta nekazaritza- eta elikadura-produktuetan ekoizpen mota hori adierazteko moduari buruzkoa) ezarritako erregimena dela-eta sortutako eginkizunak betetzeaz gainera, kontseilua aholkuak emateko eta lankidetzarako organoa ere badenez EAEko Administrazio orokorrarentzat, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak ondorengo eginkizunak ere izango ditu:

a) Nekazaritzako produktu eta elikagai ekologikoak kontrolatu eta egiaztatzea, eta, horretarako, UNE-EN 45011 arauan zehaztutako betekizunak bete beharko ditu. Kontrol hori zuzenean edo beste erakunderen bat kontratatuta eraman ahal izango da aurrera, baina erakunde horrek ere gorago aipatutako arauari dagokionez akreditatua izan beharko du.

b) Zehatzeko ahala gauzatzea, lege honetan aurreikusitako baldintzetan.

c) Nekazaritzaren arloko eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren sailari nekazaritzako ekoizpen ekologikoaren arau teknikoen multzoa eta barne-erregimeneko erregelamendua proposatzea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko; azken erregelamendu horrek, beste batzuen artean, ondorengoak zehaztuko ditu: langile propioak eta ondarea. Aurreikusitako helburuak eta Kode Zibilaren 39. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute horiek guztiek.

d) Lege honetako eta barne-erregimeneko erregelamenduko xedapenetan esaten dena bete eta betearaztea.

e) Ekoizpen ekologikoko sistemen ezagutza eta aplikazioa jakinaraztea, baita ekoizpen ekologikoaren bidez lortzen diren produktuena ere.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean nekazaritzaren arloko eskumenak dituen sailari ekoizpen ekologikoaren inguruko proposamen eta jarraibideak ematea.

2.– La actuación del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi se ejercerá sin perjuicio de lo establecido para su ámbito de actuación en otras disposiciones diferentes a las específicas de la agricultura y alimentación ecológica.

3.– El ámbito territorial del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi es el de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.– En el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi estará integrado por la totalidad de los operadores y operadoras que produzcan, elaboren, almacenen, comercialicen e importen los productos previstos en el punto 1 del artículo 1 del Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991.

***Artículo 6.***– Funciones del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

1.– Además del cumplimiento de las funciones derivadas del régimen aplicable a la producción agrícola ecológica y su indicación en los productos agrarios y alimenticios establecido por el Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991, sobre la producción agrícola ecológica y su indicación en los productos agrarios y alimenticios, y de acuerdo con el carácter de órgano de consulta y colaboración con la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi llevará a cabo las siguientes funciones:

a) Controlar y certificar la producción agraria y alimentaria ecológica, para lo cual deberá cumplir los requisitos establecidos en la norma UNE-EN 45011. El control podrá ser realizado directamente o bien mediante contrato con un organismo, el cual deberá estar acreditado respecto a la precitada norma.

b) Ejercer la potestad sancionadora en los términos previstos en esta ley.

c) Elaborar y proponer al departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria, para su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, el cuadro de normas técnicas de la producción agraria ecológica, así como el reglamento de régimen interno, que regulará, entre otros, el personal propio y el patrimonio, que deberá cumplir los fines previstos y en todo caso lo dispuesto en el artículo 39 del Código Civil.

d) Aplicar las disposiciones de la presente ley y del reglamento de régimen interno y velar por su cumplimiento.

e) Difundir el conocimiento y aplicación de los sistemas de producción ecológica y de los productos que de ella se obtienen.

f) Formular al departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria propuestas y orientaciones en materia de producción ecológica.

g) Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduaren 1. artikuluan aipatzen diren produktuetakoren bat ekoitzi, landu, biltegiratu, merkaturatu edo beste herrialde batzuetatik inportatzearen inguruan aldaketaren bat sortzen bada, horren berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean nekazaritzaren arloko eskumenak dituen sailari. Jakinarazpenean erregelamendu horren IV. eranskinean zehazten diren datuak ere jaso beharko dira.

h) Kontseiluko lehendakari eta lehendakariorde karguak beteko dituzten pertsonak nortzuk izango diren jakinaraztea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean nekazaritzaren arloko eskumenak dituen sailari, izenda ditzan.

i) Bere eginkizunak aurrera eramateko langileak hautatu, kontratatu, kargutik kendu edo karguan berrestea.

j) Kontseiluko kide bihurtzen diren operadoreek urtero ordaindu beharko duten kuota zehaztea, eta baita lege honetako 13.a) artikuluan aipatzen den diru-baliabidea zehaztea ere, kudeatzeaz gainera.

k) Nekazaritzako eta elikadurako produktu ekologikoak kontsumitzea eta horien berri ematea sustatzea.

l) Operadoreen erregistroa kudeatzea.

m) Kontseiluaren aurrekontuko diru-sarrerak eta -irteerak kudeatzea.

2.– Aurreko paragrafoan zehaztutako eginkizunak dena delakoak izanik ere, Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren eginkizuna izango da bertako kideei zerbitzua eskaintzea, beren jardunerako behar dituzten lan-aholkuak ere barne, eta beren interes ekonomiko eta korporatiboak defendatzea. Ongi bereizi behar dira kudeaketako eginkizunak eta nekazaritzako produktu eta elikagaien kontrola eta egiaztatzea.

7. ***artikulua.***– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren osaera.

1.– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua honela osatuta egongo da:

a) Lehendakaria.

b) Lehendakariordea.

c) Hiru kide, ekoizpen-ustiategien jabe direnen ordezkari.

d) Hiru kide, produktuak egin, inportatu eta/edo merkaturatzen dituzten enpresen jabe direnen ordezkari.

e) Kide bat, kontsumitzaileen elkarteen ordezkari.

f) Kide bat, Nekazaritza Ekologikoko Euskadiko Elkarteen Federazioaren ordezkari.

g) Notificar al departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria las variaciones que se produzcan en la producción, elaboración, almacenamiento, comercialización e importación de los productos indicados en el artículo 1 del Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991. La notificación deberá incluir los datos que se especifican en el anexo IV del citado reglamento.

h) Comunicar al departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria las personas que hayan de desempeñar la presidencia y la vicepresidencia para su nombramiento.

i) Seleccionar, contratar, suspender o renovar al personal que sea necesario para el cumplimiento de sus fines.

j) Fijar anualmente el importe de las cuotas que se apliquen a los operadores y operadoras que se integren en el consejo, así como el recurso contemplado en el artículo 13.a) de la presente ley y gestionar el mismo.

k) Promover el consumo y la difusión de los productos agrarios y alimentarios ecológicos.

l) Gestionar el Registro de operadores y operadoras.

m) Gestionar los ingresos y los gastos que figuran en el presupuesto del consejo.

2.– Sin perjuicio de las funciones fijadas en el párrafo anterior, el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi tendrá como función propia la prestación de servicios a sus miembros, incluido el asesoramiento profesional necesario para llevar a cabo su actividad, así como la representación y defensa de sus intereses económicos y corporativos, debiendo quedar claramente separadas las funciones de gestión de las relativas al control y certificación de la producción agraria y alimentaria.

***Artículo*** 7.– Composición del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

1.– El Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi contará con la siguiente composición:

a) Presidente o presidenta.

b) Vicepresidente o vicepresidenta.

c) Tres vocales en representación de los y las titulares de explotaciones de producción.

d) Tres vocales en representación de los y las titulares de empresas elaboradoras, importadoras y/o comercializadoras.

e) Un o una vocal en representación de asociaciones de personas consumidoras.

f) Un o una vocal en representación de la Federación de Asociaciones de Agricultura Ecológica de Euskadi.

2.– Kontseiluaren bileretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean nekazaritza arloko eskumenak dituen sailaren hiru ordezkarik, gehienez, eta foru-aldundi bakoitzeko ordezkari batek egoteko aukera izango dute. Kontseiluaren zuzendariak ere parte hartuko du bilerotan. Horiek guztiek hitz egiteko aukera bai, baina ez dute botorik izango.

3.– Kontseiluak lan-batzordeak sortzeko aukera izango du, aldi baterako zein amaiera-epe jakinik gabe. Batzorde horiek sortzeko akordioetan, zehazki zein eginkizun izango duten agertu beharko da.

***8. artikulua.***– Lehendakaria.

1.– Ekoizpen-ustiategien, enpresa produktugileen, merkaturatzaileen eta inportatzaileen ordezkarien artetik hautatuko dute kontseiluaren lehendakaria.

2.– Eginkizun hauek izango ditu kontseiluaren lehendakariak:

a) Kontseilua ordezkatzea.

b) Kontseiluaren bileren deialdia egitea, eta bilerak eta eztabaidak bideratzea.

c) Berdinketen kasuan, kalitateko botoaz baliatzea.

d) Zehapen-espedienteak hasi eta ebaztea, lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaz bat.

e) Operadoreek erregistroetan izena ematea eskatuz gero, baiezkoa edo ezezkoa ematea erabakitzea.

f) Kontseiluak ematen dizkion eginkizun guztiak.

***9. artikulua.***– Lehendakariordea.

Kontseiluaren lehendakariordea lehendakariaren modu berean hautatuko dute, eta ondorengo eginkizunak izango ditu:

a) Lehendakariarekin elkarlanean aritzea egitekoak aurrera eramateko orduan.

b) Lehendakariak berariaz bere eskuetan jarritako eginkizunak aurrera eramatea; dena den, zehapen-espedienteez ezin izango du ebatzi lehendakariordeak, eskumen hori ezin baitu lehendakariak beste inoren esku utzi.

c) Lehendakaria ordezkatzea, kargua hutsik geratu, lehendakaria kanpoan izan edo gaixorik dagoenean.

***10. artikulua.***– Bokalak.

1.– Bokalak operadoreen ordezkariak izango dira, eta demokratikoki aukeratuko dituzte azpisektore bakoitzean, kontseiluko kide diren enpresa produktugile, merkaturatzaile eta inportatzaileen artetik.

2.– Kontsumitzaileen elkarteen ordezkariak elkarte desberdinen arteko akordioaren bidez izendatuko dira.

2.– A las reuniones del consejo podrán asistir hasta un máximo de tres representantes del departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria, así como una persona en representación de cada una de las diputaciones forales. Asistirá asimismo el director o directora del consejo. Todos ellos y ellas tendrán voz, pero no voto.

3.– El consejo puede crear comisiones de trabajo, que se constituirán de forma temporal o indefinida. En el acuerdo de constitución de la comisión se definirán las misiones específicas que le competen y las funciones que ejercerá.

***Artículo 8.***– Presidente o presidenta.

1.– El presidente o la presidenta del consejo será elegido o elegida de entre los vocales y las vocales representantes de las explotaciones de producción, de las empresas elaboradoras, comercializadoras e importadoras.

2.– Son funciones del presidente o de la presidenta del consejo:

a) Representar al consejo.

b) Efectuar la convocatoria, dirigir las sesiones y los debates del consejo.

c) Emitir voto de calidad en caso de empate.

d) Incoar y resolver los expedientes sancionadores de conformidad con lo dispuesto en el artículo 15 de la presente ley.

e) Resolver sobre la inscripción o la descalificación en los registros de operadores y operadoras.

f) Todas aquellas funciones que le puedan ser encomendadas por el consejo.

***Artículo 9.***– Vicepresidente o vicepresidenta.

El vicepresidente o la vicepresidenta del consejo será elegido o elegida de la misma forma que el presidente o la presidenta y ejercerá las siguientes funciones:

a) Colaborar con el presidente o la presidenta en el desempeño de sus funciones.

b) Ejercer las funciones que el presidente o la presidenta expresamente le delegue, con excepción de la resolución de los expedientes sancionadores, que tendrá el carácter de indelegable.

c) Sustituir al presidente o a la presidenta en los casos de vacante, ausencia o enfermedad de éste o ésta.

***Artículo 10.***– Vocales.

1.– Los y las vocales, representantes de los operadores y operadoras, serán elegidos o elegidas democráticamente, en cada subsector, de entre las empresas elaboradoras, comercializadoras e importadoras que se integren en el consejo.

2.– Las personas que representen a las asociaciones de personas consumidoras serán nombradas por medio de acuerdos entre las diferentes asociaciones.

3.– Hauteskunde-sistema barne-erregimeneko erregelamenduak zehaztuko du. Kasu guztietan, kontseiluko bokal bakoitzaren ordezko bat izendatu beharko da; titularra hautatzeko sistema bera erabiliko da horretarako, eta ordezkatu behar duen pertsonaren sektore berekoa izango da.

*11. artikulua.–* Zuzendaria.

Zuzendaria kontseiluak izendatuko du, eta ondorengo eginkizunak izango ditu:

a) Kontseiluak emango dituen zerbitzuak antolatzea.

b) Kontseiluan lanean dihardutenen zuzendaria izatea.

c) Ikuskatze- eta egiaztatze-lanak koordinatu eta horien jarraipena egitea.

d) Kontseiluaren kudeaketa ekonomikoaz arduratzea, aurrekontuen aurreproiektua eta jardueren txostena eginez.

e) Kontseiluaren baitako lan tekniko, burokratiko eta barne-erregimenekoak zuzendu eta aurrera eramatea: langileen arlokoak, ondarearen arlokoak eta baliabide material eta finantzieroei buruzkoak.

f) Kontseiluaren idazkari izatea, eta ondorengo eginkizunak izango ditu:

1.– Kontseiluaren lanak prestatu eta akordioak betearazteko izapideak egitea.

2.– Lehendakariak agindutako deialdiak bideratzea, bileretara joatea, aktak idaztea eta hartutako akordioen egiaztagiriak egitea, lehendakariaren oniritzia jasota.

3.– Zehapen-espedienteen izapideak egitea, lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaz bat.

4.– Kontseiluaren lehendakariak ematen dizkion eginkizun guztiak.

g) Kontseiluak ematen dizkion eginkizun guztiak.

*12. artikulua.–* Egiaztapenen lantaldea.

1.– Egiaztapen-lanak kontrolatzeko eginkizuna duen lan-taldea da Egiaztapenen lantaldea, eta baita egiaztapenen prozesua inpartzialtasun eta independentziaz burutuko dela ziurtatuko duena. Gehienez ere zortzi teknikarik osatuko dute, nekazaritza ekologikoaren arloko esperientzia eta gaitasun teknikoa izan beharko dute eta aholkulari aditu independente ospetsuen laguntza ere eskatzeko modua izango dute, lantaldearen lana aurrera eramateko beharrezkoa irizten diotenean.

2.– Egiaztapenen lantaldearen txostenak kontseiluan aurkeztu beharko dira, kontseiluak erabaki dezan.

3.– Egiaztapenen lantaldearen funtzionamendua barne-erregimeneko erregelamenduan arautuko da.

3.– El sistema electoral será establecido por el reglamento de régimen interno. En todo caso, por cada vocal del consejo se designará una persona suplente, elegida de la misma forma que el o la titular y perteneciente al mismo sector que el vocal o la vocal que va a sustituir.

*Artículo 11.–* Director o directora.

El director o la directora será designado o designada por el consejo y desempeñará las siguientes funciones:

a) La organización de los servicios que preste el consejo.

b) La dirección del personal que presta sus servicios en el consejo.

c) La coordinación y el seguimiento de las tareas de inspección y certificación.

d) La gestión económica del consejo, elaborando los anteproyectos de presupuestos y memoria de actividades.

e) La dirección y desarrollo de los trabajos técnicos, burocráticos y de régimen interno del consejo, relativos tanto al personal como al patrimonio y medios materiales y financieros.

f) Actuar como secretario o secretaria del consejo, a cuyo fin deberá realizar las siguientes funciones:

1.– Preparar los trabajos del consejo y tramitar la ejecución de los acuerdos.

2.– Cursar las convocatorias ordenadas por el presidente o la presidenta, asistir a las reuniones, levantar actas y expedir los certificados de los acuerdos adoptados con el visto bueno del presidente o la presidenta.

3.– Instruir los expedientes sancionadores de conformidad con lo fijado en el artículo 15 de la presente ley.

4.– Todas aquellas que le puedan ser encomendadas por el presidente o presidenta del consejo.

g) Todas aquellas que le puedan ser encomendadas por el consejo.

*Artículo 12.–* Comité de Certificación.

1.– El Comité de Certificación es el órgano encargado de controlar las actividades de certificación y el responsable de asegurar la imparcialidad e independencia en el proceso de certificación. Estará formado por un máximo de ocho personas que cuenten con cualificación técnica y con experiencia en agricultura ecológica. El comité podrá recabar el asesoramiento de especialistas independientes y de reconocido prestigio cuando lo estime necesario para el cumplimiento de sus funciones.

2.– Los informes del Comité de Certificación se elevarán al consejo para que éste decida.

3.– El funcionamiento del Comité de Certificación se regulará en el reglamento de régimen interno.

*13. artikulua.*– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren finantzazioa.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak baliabide hauek izango ditu finantzazioaren arloan:

a) Kontseiluan izena emanda dauden operadoreek ordaindutako kontribuziotik jasotako kopuruak; kontribuzio hori Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 Erregelamenduan (EEE) aurreikusitako kontrol-gastuen ondoriozkoa izango da, eta gastuok izaera publikoko ondare-prestaziotzat hartuko dira.

Zergapeko egitatea.

Diru-sarrera horren zergapeko egitatea ondorengo zerbitzuak eskaintzea izango da, dela ofizioz zein interesatuak eskatuta:

1.– Produktuak ekoitzi, landu, biltegiratu, beste herrialde batzuetatik inportatu edo merkaturatzen dituzten nekazaritzako enpresen espedienteak izapidetzea eta enpresa horiek erroldan jasotzea. Atal honen barruan gai hauei buruzko espedienteak izapidetzea sartzen da: berrikuntzak egin, handitu, lekualdatu, makinak ordezkatu, titularitatea aldatu edo titularraren izena aldatzearekin zerikusia duten espedienteak. Era berean, indarrean dagoen legeria betetzen dela ikuskatzea, egiaztatzea eta kontrolatzea ere horren barruan sartzen da.

2.– Babestutako adierazpenak erabiltzeko eskubidea duten produktuen egiaztagiriak, zirkulazioko paperak, etiketak edo kontraetiketak eta bisatuak ematea. Indarrean dagoen legeria betetzen dela ikuskatzea, egiaztatzea eta kontrolatzea ere horren barruan sartzen da.

Subjektu pasiboa.

Diru-sarrera honen subjektu pasiboak zergapeko egitatea diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira.

Sortzapena.

Diru-sarrera honen zergapeko egitatea diren jarduerak, hau da, 1. multzokoak, lehenengo inskripzioa egiten den unean edo ondorengo arloetako enpresen espedienteak izapidetzean sorraraziko dira: produktuak ekoitzi, landu, biltegiratu, beste herrialde batzuetatik inportatu edo merkaturatzen dituzten nekazaritzako enpresen espedienteak izapidetzean.

Diru-sarrera honen zergapeko egitatea diren 2. multzoko jarduerak, babestutako adierazpenak erabiltzeko eskubidea duten produktuen egiaztagiriak, zirkulazioko paperak, etiketak edo kontraetiketak eta bisatuak ematean sorraraziko dira.

Dena den, eskabidea egiten den unean ordaintzeko eskatu ahal izango da.

Kuota eta likidazioa.

*Artículo 13.*– Financiación del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

La financiación del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi se efectuará con los siguientes recursos:

a) La cantidad recaudada por los ingresos procedentes de la contribución, por los operadores y las operadoras que se hayan inscrito, de los gastos de control previstos en el Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991, los cuales tendrán la consideración de prestación patrimonial de carácter público.

Hecho imponible.

Constituye el hecho imponible de este ingreso la prestación, de oficio o a instancia de parte, de los siguientes servicios:

1.– Tramitación de expedientes e inscripción de empresas agrarias de producción, industrias elaboradoras, empresas almacenadoras, empresas importadoras de países terceros o empresas comercializadoras. Este epígrafe comprende la tramitación de expedientes de renovación, ampliación, traslado, sustitución de maquinaria y cambio de titularidad o de denominación del titular o de la titular. También incluye la inspección, comprobación y control del cumplimiento de la legislación vigente.

2.– Expedición de certificados, volantes de circulación, etiquetas o contraetiquetas y visados de documentos relativos a los productos con derecho a utilizar las indicaciones protegidas. Este epígrafe comprende la inspección, comprobación y control del cumplimiento de la legislación vigente.

Sujeto pasivo.

Son sujetos pasivos de este ingreso las personas físicas o jurídicas que sean receptoras de los servicios prestados que constituyen el hecho imponible.

Devengo.

Las actividades del grupo 1 a que se refiere el hecho imponible de este ingreso se devengarán en el momento en que se formalice la primera inscripción o cuando se efectúe la tramitación de expedientes de las empresas agropecuarias de producción, industrias elaboradoras, empresas almacenadoras, empresas importadoras de países terceros o empresas comercializadoras que sometan su actividad a control.

Las actividades del grupo 2 a que se refiere el hecho imponible de este ingreso se devengarán cuando se expidan los certificados, volantes de circulación, etiquetas o contraetiquetas y visado de documentos relativos a los productos con derecho a utilizar las indicaciones protegidas.

En cualquier caso, el pago podrá exigirse en el momento en que se formule la solicitud.

Cuota y liquidación.

Kuota zenbatekoa izango den eta noiz likidatuko den Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak zehaztuko ditu.

b) Kontseiluko kide bihurtutako operadoreek ordaindutako kuoten zenbatekoa.

c) Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura urtero ezartzen diren aurrekontuetako diru-esleipenak, baita kontseiluaren aldeko beste diru-laguntzak ere, Administrazio publikoek halakorik erabakitzen badute.

d) Lege honetako 14. artikuluan zehaztutako zehapenak kobratzetik jasotako zenbatekoak. Zehapenak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira, eta, beraz, zuzenbide publikoko gainontzeko diru-sarreren erregimen beraren menpe egongo dira.

e) Dohaintzak, legatuak, laguntzak eta legokiokeen beste edozein baliabide.

f) Kontseiluari edo kontseiluak ordezkatzen dituen interesei eragindako kalteengatik kalte-ordain gisa jasotako kopuruen zenbatekoa.

g) Bere ondarearen errenta eta etekinak.

h) Edozein titulu dela eta berari dagozkion gainontzeko baliabide guztiak.

*14. artikulua.–* Zehapen-araubidea.

1.– Europako Kontseiluaren 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 (EEE) Erregelamenduan (nekazaritza-ekoizpen ekologikoari eta nekazaritza- eta elikadura-produktuetan ekoizpen mota hori adierazteko moduari buruzkoa) nekazaritza ekologikoaren bidezko produktuak ekoitzi, landu, biltegiratu, merkaturatu eta hirugarren herrialde batzuetatik inportatzeari buruzko arauetan esaten dena ez betetzeagatik izango diren arau-hausteak eta horiei dagozkien zehapenak ondorengo lege edo arauetan jasotakoak izango dira: lege honetan bertan jasotakoak, abenduaren 22ko 6/2003 Legean jasotakoak (Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzkoa), ekainaren 22ko 1945/1983 Dekretuan jasotakoak (kontsumitzaileen defentsaren eta nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren alorreko arau-hausteak eta zehapenak arautzen ditu), edo hori guztia osatu edo aldatzen duten beste xedapen batzuetan jasotakoak.

2.– Maiatzaren 7ko 5/2004 Legearen ezarpen-eremuaren baitan sartzen diren produktu ekologikoei dagokienez (mahastizaintza eta ardogintza antolatzen ditu), lege horretan bertan eta uztailaren 10eko 24/2003 Legean (mahasti eta ardoei buruzkoan) aipatzen diren arau-hauste eta zehapenak ezarriko dira.

3.– Barne-erregimeneko erregelamenduak zehaztuko du kontseiluan sartzen diren operadoreek zein erregimen izango duten arau-hauste eta zehapenen arloan, kontseiluko kide izateak dakartzan betebeharrak ez betetzeagatik.

La cuota y el momento de liquidación serán fijadas por el Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi.

b) El importe de las cuotas satisfechas por los operadores y las operadoras que se integren en el consejo.

c) Las asignaciones presupuestarias que se establezcan anualmente con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como otras subvenciones que se concedan a su favor por las administraciones públicas.

d) Los importes del cobro de las sanciones establecidas en el artículo 14 de la presente ley. Las sanciones tendrán la consideración de ingreso de derecho público, sometiéndose al mismo régimen que el resto de ingresos de derecho público.

e) Las donaciones, legados, ayudas y cualesquiera otros recursos que puedan corresponderle.

f) Los importes que pueda percibir en concepto de indemnización por daños y perjuicios ocasionados al consejo o a los intereses que representa.

g) Las rentas y productos de su patrimonio.

h) Todos aquellos otros recursos que por cualquier título le correspondan.

*Artículo 14.–* Régimen sancionador.

1.– La tipificación de las infracciones y sus correspondientes sanciones por el incumplimiento de las normas relativas a la producción, elaboración, almacenamiento, comercialización e importación contenidas en el Reglamento (CEE) n.º 2092/91, del Consejo, de 24 de junio de 1991, sobre la producción agrícola ecológica y su indicación en los productos agrarios y alimenticios, serán las contempladas en la presente ley, en la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, en el Real Decreto 1945/1983, de 22 de junio, que regula las infracciones y sanciones en materia de defensa del consumidor y de la producción agroalimentaria, y en cualesquiera otras disposiciones que las complementen o sustituyan.

2.– En el caso de los productos ecológicos comprendidos en el ámbito de aplicación de la Ley 5/2004, de 7 de mayo, de Ordenación Vitivinícola, serán de aplicación las infracciones y sanciones recogidas en la misma, así como en la Ley 24/2003, de 10 de julio, de la Viña y del Vino.

3.– El reglamento de régimen interno establecerá el régimen de infracciones y sanciones aplicables a los operadores y las operadoras que se integren en el consejo respecto de los incumplimientos derivados de su vinculación al mismo.

*15. artikulua.*– Zehapen-prozedura.

1.– Zehapen-prozeduran, ondorengo legeek esaten dutena beteko da: lege honek dioena, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak IX. tituluan dioena (baina urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak egindako aldaketen arabera); eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zehapen-eskumenei buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak dioena.

2.– Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua izango da aurreko artikuluan aipatzen diren arau-hausteak direla-eta zehapen-prozedura hasi eta horretaz ebazteko eskumena izango duen organoa. Zehapen-prozeduraren izapideak egiteko eskumena kontseiluko idazkariarena da. Espediente horiek lehendakariak hasi eta ebatziko ditu.

3.– Aurreko artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan aurreikusitako arau-hausteen ondorioz hasitako zehapen-prozedurak ebatzitakoan, ebazpen horien aurkako gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean nekazaritza arloko eskumenak dituen organoan, administrazio-prozedurarako arauek ezarritako epe eta baldintza berdinen pean. Aurreko artikuluko 3. paragrafoan aipatzen diren arau-hausteak direla-eta hasitako zehapen-prozeduren kasuan, ebatzi eta gero, artikulu horretan bertan barne-erregimeneko erregelamenduaz esaten dena hartuko da kontuan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehenengoa.***– Hiru hilabeteko epearen barruan, gehienez, lege hau EHAAn argitaratzen denetik, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren agindu baten bidez, kudeaketa-batzorde bat sortuko da, honela osatuta: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean nekazaritza arloko eskumenak dituen sailaren bi ordezkari, ekoizpen-ustiategien ordezkari bat, enpresa produktugile, inportatzaile edo merkaturatzaileen ordezkari bat, kontsumitzaileen elkarteen ordezkari bat eta Euskadiko Nekazaritza Ekologikoko Elkarteen Federazioaren ordezkari bat. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean nekazaritza arloko eskumenak dituen saila ordezkatzen duten bi kideetako bat izango da batzordeko burua.

Kudeaketa-batzordea izango da Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko kideak aukeratzeko lehen hauta-prozesua aurrera eramateko ardura izango duena, eta baita kontseilua lanean jartzeko egin beharreko kudeaketa-lan guztiak abiaraziko dituena.

*Artículo 15.*– Procedimiento sancionador.

1.– El procedimiento sancionador se ejercerá de conformidad con lo previsto en la presente Ley, en el título IX de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en la nueva versión dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– El Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi es el órgano competente para incoar y resolver el procedimiento sancionador por las infracciones previstas en el artículo anterior. La competencia para instruir el procedimiento sancionador corresponderá al secretario o secretaria del consejo. La incoación y resolución de los expedientes corresponderá al presidente o presidenta.

3.– Contra la resolución de los procedimientos sancionadores incoados por las infracciones previstas en los párrafos 1 y 2 del artículo anterior podrá interponerse recurso de alzada ante el órgano correspondiente del departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria, en el plazo y con los requisitos que establecen las normas de procedimiento administrativo. Contra la resolución de los procedimientos sancionadores incoados por las infracciones previstas en el párrafo 3 del artículo anterior se estará a lo dispuesto en el reglamento de régimen interno previsto en ese mismo artículo.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera.***– En el plazo máximo de tres meses, a partir de la publicación de la presente ley en el BOPV, y mediante orden de quien sea titular del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, se nombrará una comisión gestora, formada por dos representantes del departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria, una persona en representación de los y las titulares de explotaciones de producción, una persona en representación de los y las titulares de empresas elaboradoras, importadoras y/o comercializadoras, una persona en representación de las asociaciones de personas consumidoras y una persona en representación de la Federación de Asociaciones de Agricultura Ecológica de Euskadi. Una de las dos personas que representen al departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria presidirá la comisión gestora.

La comisión gestora será la encargada del desarrollo del primer proceso electoral para la elección de los y las vocales del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi, así como de todos aquellos actos ordinarios de gestión necesarios para la puesta en marcha de dicho consejo.

Kudeaketa-batzorde hori bertan behera geratuko da hauta-prozesua burutu eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko kideak izendatzen dituztenean.

*Bigarrena.–* Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren aginduz, egiaztapenen behin-behineko lantaldea izendatuko da, honako kide hauekin: Euskadiko Nekazaritza Ekologikorako Elkarteen Federazioak proposaturiko haren ordezkari bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean nekazaritza arloko eskumenak dituen sailak proposaturiko elikagaien kontrolean aditua den tekniko bat, eta nekazaritza ekologikoan aditua den nekazaritzako elikagaietako tekniko bat, Euskal Herriko Unibertsitateak proposatua.

Egiaztapenen behin-behineko lantalde hori iraungiko da 12. artikuluaren 3. paragrafoak aurreikusitako barne-erregimeneko erregelamendua indarrean jarri eta 12. artikuluaren 1. paragrafoak aurreikusitako egiaztapenen lantaldeko kideak izendatzearekin.

*Hirugarrena.–* Hauta-prozesua burutu eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluko kideak izendatzen dituztenean, lehen xedapen indargabetzailean aipatzen den tasa indarrik gabe uzteko erabakia indarrean jarriko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

*Lehenengoa.–* Indarrik gabe utzi da nekazaritza ekologikoko produkzioa kontrolatzeko zerbitzuengatiko tasa (04.07); tasa hori maiatzaren 29ko 13/1998 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoan, dago jasota, II. tituluaren V. kapituluko 7. sekzioko 102.etik 106.era arteko artikuluetan.

*Bigarrena.–* Irailaren 24ko 229/1996 Dekretuak (1996ko urriaren 7ko EHAA, 193. zenb.) nekazaritza ekologikoa eta bere produktuen elaborazioa eta merkaturatzea arautu zituen, Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseilua sortzeaz gainera; bada, indarrik gabe geratu dira dekretu horretako 5, 6, 7, 8, 10 eta 11. artikuluak, eta baita beste edozein xedapen ere, baldin eta lege honetan xedatutakoaz bat ez baldin badator.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak gehienez ere sei hilabeteko epean barne-erregimeneko erregelamendua idatzi eta onartu beharko du, eta beste kontu batzuen artean, hautes-sistema nolakoa izango den zehaztu beharko du, lege honetan aipatzen diren ordezkaritzak bermatuko direla ziurtatu ahal izateko.

*Bigarrena.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

La comisión gestora se extinguirá cuando las y los miembros del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi sean nombradas y nombrados tras la celebración del citado proceso electoral.

*Segunda.–* Mediante orden de quien sea titular del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación se nombrará un comité de certificación provisional, formado por una persona en representación de la Federación de Asociaciones de Agricultura Ecológica de Euskadi, propuesta por dicha federación, una persona con cualificación técnica especialista en control alimentario propuesta por el departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia agraria y una persona con cualificación técnica del ámbito agroalimentario especialista en agricultura ecológica, propuesta por la Universidad del País Vasco.

Este comité de certificación provisional se extinguirá cuando los y las miembros del comité de certificación previsto en el apartado 1 del artículo 12 sean nombrados o nombradas, tras la entrada en vigor del reglamento de régimen interno previsto en el apartado 3 de dicho artículo 12.

*Tercera.–* La derogación de la tasa, prevista en la disposición derogatoria primera, será efectiva cuando las y los miembros del Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi sean nombradas y nombrados tras la celebración del oportuno proceso electoral.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

*Primera.–* Se deroga la tasa (04.07) por servicios de control del régimen de producción agraria ecológica, contemplada en los artículos 102 a 106 de la sección 7.ª del capítulo V del título II de la Ley 13/1998, de 29 de mayo, de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Segunda.–* Quedan derogados los artículos 5, 6, 7, 8, 10 y 11 del Decreto 229/1996, de 24 de septiembre, por el que se regula la producción agraria ecológica, su elaboración y comercialización, y se crea el Consejo Vasco de la Producción Agraria Ecológica (BOPV n.º 193, de 7 de octubre de 1996), y cualquier otra disposición en todo aquello en lo que se oponga a lo establecido en la presente ley.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* El Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi, en un plazo máximo de seis meses, elaborará y aprobará el reglamento de régimen interno que deberá establecer, entre otros aspectos, el sistema electoral que asegure la representación que prevé la presente ley.

*Segunda.–* La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 29a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### 56

265/2006 DEKRETUA, abenduaren 26koa, babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko Dekretua bosgarren aldiz aldatzen duena.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko urriaren 3an egindako bilkuran onetsi zuen 2006-2009 Etxebizitza Bideratzeko Plana. Plan horren helburua da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren aldi horretarako jardueren zuzentarauak finkatzea, ondorengo irizpideak bereganatuta: plangintza estrategikoa, sustapena eta beste jarraibide batzuk, estrategikoak ez badira ere, munta edo garrantzi handikoak direnak etxebizitzaren alorrean dihardutenn eragileentzat eta babes publikoko etxebizitzak behar dituzten herritarrentzat.

Plan horren ardatz garrantzitsuenetako bat, garrantzitsuena ez bada, babespeko etxebizitzaren hedapenari bultzada handi bat ematea da, nola kopuruan hala tipologien ugaritasunean. Horretarako, emango diren laguntzak eta finantza-neurriak erabiliko dira.

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak zabaldu ditu dauden tipologiak, «zuzkidura-lojamenduak» izeneko irudia, «tasatutako etxebizitza autonomikoak» eta «udal etxebizitza tasatuak» sortuz eta ondorio guztietarako «babes ofizialeko etxebizitzatzat» joz.

Beraz, babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 42. artikulua aldatzea proposatzen da, finantza-neurriekin babestu litezkeen jarduerak Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak sortutako etxebizitza-tipologia horietara (zuzkidura-lojamenduak eta tasatutako etxebizitzak) zabaltzeko. Horrela, arau-estaldura eman nahi zaie babespeko etxebizitza-topologia

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 29 de diciembre de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### 56

DECRETO 265/2006, de 26 de diciembre, de quinta modificación del Decreto sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

El Plan Director de Vivienda 2006-2009 fue aprobado por Consejo de Gobierno, en su sesión de 3 de octubre de 2006. La finalidad de dicho Plan es establecer las Directrices para las actuaciones del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en materia de vivienda durante el período señalado, incorporando criterios de planificación estratégica, fomento y otras orientaciones que, no teniendo el carácter de estratégicas, son de gran calado para los agentes intervinientes en materia de vivienda y para los ciudadanos necesitados de vivienda de protección pública.

Uno de los ejes fundamentales, si no el fundamental, de dicho Plan Director, es abordar un impulso decidido en la extensión de la vivienda protegida, tanto en volumen como en variedad de tipologías, sirviéndose para ello de la concesión de las ayudas y medidas financieras oportunas.

La Ley del Suelo y Urbanismo 2/2006, de 30 de junio, ha ampliado las tipologías existentes, creando una nueva figura denominada «alojamientos dotacionales», las figuras de las «viviendas tasadas autonómicas» y las «viviendas tasadas municipales», considerándolas como «viviendas de protección pública» a todos los efectos.

Por tanto, se propone modificar el artículo 42 del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, al objeto de ampliar las actuaciones protegibles con medidas financieras a las mencionadas tipologías de vivienda protegida creadas por la Ley del Suelo y Urbanismo 2/2006, de 30 de junio (alojamientos dotacionales y viviendas tasadas). De este modo, se pretende dar cobertura normativa a las